

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

# KONTRATUEN INGURUKO ERREKURTSOEN ADMINISTRAZIO-ORGANOAREN OROITIDAZKIA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA  
2017. URTEA



Kontratuen inguruko Errekurtsoen  
Administrazio Organoa  
Órgano Administrativo  
de Recursos Contractuales

# KONTRATUEN INGURUKO ERREKURTSOEN ADMINISTRAZIO-ORGANOAREN OROTIDAZKIA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA  
2017. URTEA



**Kontratuen inguruko Errekurtsoen  
Administrazio Organoa**  
Órgano Administrativo  
de Recursos Contractuales

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2018

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren  
*Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke:  
<http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

**Argitaraldia:** 1.a, 2018ko iraila

**Ale-kopurua:** 50 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Ogasun eta Ekonomia Saila

**Internet:** [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

**Argitaratzailea:** Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

**Diseinua:** EkipoPO

**Inprimaketa:** Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua  
C/ Donostia-San Sebastián 1, Vitoria-Gasteiz 01010

**Lege gordailua:** VI 396-2018

# AURKIBIDEA

I. MEMORIAREN XEDEA .....	7
II. OSAERA ETA BALIABIDEAK 2017AN .....	9
II.1. OSAERA .....	9
II.2. KEAO-REN TITULARTASUNA ALDATZEA .....	9
II.3. AURREKONTUA .....	10
III. JARDUERA OSAGARRIA 2017AN.....	11
III.1. KEAOREN WEBGUNEA.....	11
III.2. ERREKURTSOAK KUDEATZEKO PROGRAMA INFORMATIKOA .....	11
III.3. DIBULGAZIO-JARDUERA .....	12
IV. KEAO-REN 2017KO EBAZPEN-JARDUERARI BURUZKO DATUAK.....	13
IV.1 ERREKURTSOEN ETA EMANDAKO EBAZPENEN GUZTIZKO KOPURUAK, URTEAREN ARABERA .....	13
IV.2. ERREKURTSOEN EHUNEKOAK, BOTERE ESLEITZAILEAREN ARABERA .....	14
IV.3. ERREKURTSOEN EHUNEKOAK, KONTRATU MOTAREN ARABERA .....	15
IV.4. EHUNEKOAK, ERREKURTSOA IPINITAKO EGINTZAKO .....	16
IV.5. 2017AN EMANDAKO EBAZPENEN IZAERA .....	17
IV.6. ERREKURTSOAK, HILABETEAREN ETA URTEAREN ARABERA.....	18
IV.7. EBAZPENA EMATEKO EPEA .....	18
IV.8. ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOAK ETA EMANDAKO EPAIEN IZAERA .....	18
V. 2017KO EBAZPENIK GARRANTZITSUENAK .....	23



# I. MEMORIAREN XEDEA

Lehenago argitaratutako beste memorietan adierazi bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa (aurrerantzean, KEAO) Euskal Autonomia Erkidegoko 2011rako aurrekontu orokorren Legearen zortzigarren xedapen gehigarriaren bidez sortu zen (abenduaren 23ko 5/2010) administrazio-organo gisa, haren esparru objektibo eta subjektiboan bildutako kontratu publikoetan hartutako erabaki jakin batzuen legezketasuna kontrolatzeko. Hori dela eta, tankera horretako organoek euren eskumen-esparruan izaten dituzten ezaugarriak ditu, hala nola bere eskumenak erabiltzeko independentzia funtzionala (lotura hierarkikorik eza edota inoren aginduak bete behar ez izatea), titularraren espezializazioa eta agintaldiak irauten duen bitartean titularra aldatu ezina.

Botere esleitzaleei eta operatzaile ekonomikoei denbora-tarte jakin batean izandako jarduerari buruzko informazio estatistikoa emateko xedez prestatu eta argitaratu da KEAOren urteko memoria (kasu honetan, 2017. urteari dagokiona emateko), eta, horrez gainera, denbora-tarte horretan agindutako funtzioa betetzean bideratu diren giza baliabideei eta baliabide ekonomikoei buruzko informazioa ematen du.

Memoriarekin batera, beste dokumentu bat argitaratzen da, Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren doktrina; han, administrazio-organoak egin dituen pronuntziamendu garrantzitsuenen laburpenak daude jasota modu sistematikoan, hasi jarduerari ekindako urtetik eta 2017raino. Era berean, esandako agirian, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean KEAOren zer ebazpeni jarri zaien errekurtsoa agertzen da zerrendatuta, 2018ko martxoaren 31ra bitartean jakindako erabakien emaitza eta guzti.






## II. OSAERA ETA BALIABIDEAK 2017AN

### II.1. OSAERA

KEAOren egiturak, kopuruari eta osaerari dagokionez, ez du aldaketarik izan 2017an, eta, beraz, aurreko urteko berbera da. Zehazki honako hauek osatzen dute:

- Organoaren titularra.
- Aholkularitza juridikoaren bi arduradun.
- Organoaren idazkaritzaren ardura duen aholkulari juridikoa.
- Administraria.

Hona hemen egituraren organigrama:



### II.2. KEAO-REN TITULARTASUNA ALDATZEA

Urriaren 31ko 242/2017 Dekretuaren bitartez (2017ko azaroaren 9ko 214. zenbakidun Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria), Jose Antonio Ausin Unzurrunzaga jaunak Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoko titular kargua utzi zuen, izendatu zutenetik sei urteko epea bete izanagatik. Dekretuak Maria Begoña Arroita Jauregi Jayo andrea izendatu zuen Organoko titular berri. Titularraren ordezkoko gisa, berriz, Francisco Javier Elola del Río jaunak jarraitzen du karguan.





### II.3. AURREKONTUA

KEAO kontratazioaren alorrean eskumena duen sailari atxikita dago, Ogasun eta Ekonomia Sailari, alegia. Jarduera garatzeko bitarteko materialak (batik bat programa informatikoaren eta webgunearen mantentze-lanetatik eratorriak) Sail horretara bideratutako aurrekontuaren kontura ordainduko dira.

KEAOk langileen gastuak Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuetan zehaztuta daude, eta 2017an guztira 328.824,27 euroko zenbatekoa izan dute, guztia ere 6114 aurrekontu-programako 6. sekzioko 09 zerbitzuaren kargura, 2017ko ekitaldiari dagokion aurrekontuaren likidazioan ikusten den moduan.

2016an bezala, 2017an ere ez da diru-sarrerarik izan.

## III. JARDUERA OSAGARRIA 2017AN

### III.1. KEAOREN WEBGUNEA

KEAOk webgune bat du Euskadiko kontratazio publikoaren atarian, <http://www.contratacion.euskadi.eus> helbidean; haren bidez jartzen da harremanetan elektronikoki botere esleitzailleekin eta errekurtsuak aurkezten dituzten eragile ekonomikoekin.

Webgune horretan bertan argitaratzen dira ebazpenak, bilaketak hainbat irizpideren arabera egiteko moduan; era berean, botere esleitzailleentzat eta eragile ekonomikoentzat interesgarri izan litezkeen bestelako dokumentuak ere argitaratzen dira atarian, hala nola kontratu publikoekin lotutako erabaki jakin batzuen berrikuspen-prozedura bereziei eragiten dieten arauen zerrenda, ebazpen esanguratsuenak biltzen dituen laburpen sistematikoa edota kontratu publikoei buruzko errekurtsuak ebazteko auzitegiek egindako dokumentua (*Los efectos jurídicos de las directivas de contratación pública ante el vencimiento del plazo de transposición sin nueva ley de contratos* izenburua duena, euskaratu gabe).

### III.2. ERREKURTSOAK KUDEATZEKO PROGRAMA INFORMATIKOA

Errekurtsu berezien prozedurak, erreklamazioak eta sortzen diren deuseztasun-auziak kudeatzeko, KEAOk aplikazio informatiko bat dauka (Y96A) webgunearen barruan. Honako funtzio hauek ditu:

- Botere esleitzailleekin loturik:

Botere esleitzailleek kontratazio-espeditentea helarazi behar dute; alegia, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 46.2 artikulua edota Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 105.2 artikulua zehaztutako txostena, baldin eta hura kontratazio-organoaren aurrean jarritakoa balitz. Behar bezala digitalizatuta aurkeztu beharko da, konfiantzazko inguru batean dagoen aplikazio informatikoan, eta espedienteen izapideak edozer egoeratan ikusi ahal izango dira. Era berean, botere esleitzailleak alta eta baja eman diezaike KEAOn haren izenean baimendutako langileei aplikazio informatikoan, edota aldatu.

- Errekurtsogileak eta interesdunak:

Pertsona juridiko diren errekurtsogile eta interesdunek, urriaren 1eko Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2.a) artikuluan ezarritakoa aplikatuz, KEAOn harreman elektronikoa izan behar dute; horretarako, elektronikoki ipini behar dute kontratazioko errekurtsu berezia, erreklamazioa edota deuseztasun-auzia, eta alegazioak formulatu behar dituzte, ekindako prozeduretan interesdun bezala pertsonatuz gero. Halaber, espedienteen izapidetze-egoera eta jakinarazpenak modu

telematikoan ikusten dira. Operadore ekonomikoa pertsona fisikoa izanez gero, nahien komunikazio-kanala aukeratu ahal izango du, dela telematika, dela posta bidezkoa.

- 2017an zehar «espedientea osatzea», «ebazpena argitzea», «ebazpena betetzea» eta «errekurtsoa EAEANera bidaltzea» errekurtso bereziko prozeduraren zatiak digitalizatu dira; hori horrela, errekurtso bereziko prozedura osoa digitalizatu da. Gainera, espedienteen artxibatze informatikoa ere jaso da programa informatikoan; hala bada, errekurtso bereziko espedienteak, deuseztasuneko kasu bereziak eta erreklamazioak telematikoak dira interesdunek idazkiak aurkezten dituztenetik artxibatzen diren arte.

### III.3. DIBULGAZIO-JARDUERA

KEAOren webguneko «Memoriak eta doktrina» atalean, 2011n martxan ipini zenetik izan diren ebazpen garrantzitsuenen bilduma ageri da, KEAOren webgunean dauden ebazpenak bilatzeko sailkapen-irizpideen arabera multzokatuta. Dokumentu hori osatzeko, 2017ko ebazpenik esanguratsuenak ere jaso dira.

## IV. KEAO-REN 2017KO EBAZPEN-JARDUERARI BURUZKO DATUAK


### IV.1 ERREKURTSOEN ETA EMANDAKO EBAZPENEN GUZTIZKO KOPURUAK, URTEAREN ARABERA

Orotara erregistratutako errekurtsoen kopuru osoa eta 2017an emandako ebazpenen kopurua honako hau izan da:

- Errekurtsoen kopurua, guztira: 178

2017ko urtarrilaren 1etik eta 2017ko abenduaren 31ra bitartean 2016an baino hogei errekurtsu gehiago jarri ziren (158 erregistratu ziren 2016an). Hori horrela, Organoaren jarduera % 12,65 hazi zen.

Honako grafiko honetan dago jasota errekurtsoen kopuruen bilakaera, jarduerari ekin zion urtetik aurrera urteka sailkatuta:



- Ebazpenen kopurua, guztira: 144


2017ko urtarrilaren 1etik 2017ko abenduaren 31ra emandako ebazpenak biltzen ditu. Horien artean ez dago EB 2017/126 errekurtsoarekin lotutakoa, KEAOk hori bera ebatzi eta jakinarazteko epea bertan behera uztea adostu baitzuen 2017ko azaroaren 14ko B-BN 24/2017 Ebazpenaren bitartez, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22.1 c) artikuluan ezarritakoa betez. Izan ere, ebazpenaren edukia Europako Justizia Auzitegiak KEAOk EB 2016/108 ebazpenean planteatutako C-546/16 epaitu aurreko arazoaren inguruan emango duen erantzunak baldintzatzen du.

2017an emandako ebazpen kopurua 2016an emandakoaren oso antzekoa da; zehazki, 2017an ebazpen bat gehiago eman da

## IV.2. ERREKURTSOEN EHUNEKOAK, BOTERE ESLEITZAILEAREN ARABERA


«Sozietate publikoak» atalean, tokiko sektorekoak zein Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioekoak ageri dira. Bestalde, «Beste administrazio publiko batzuk» kontzeptuaren barruan, Euskal Herriko Unibertsitatea, hainbat administrazio osatutako partzuergoak eta udalerrien mankomunitateak ere jasotzen dira.

Taula honetan, botere esleitzailerako bakoitzaren kontra aurkeztutako errekurtsoen ehunekoak ageri dira:




«EAEko administrazio orokorra eta instituzionala» kontzeptuaren pean jasotako kontratuen aurkaratzeen ehunekoa nabarmen hazi dela ikus daiteke; horren erakusle, 2016an jarritako errekurtsu berezi guztien % 36 baziren, 2017an zehar % 44 izatera igaro dira. Aldiz, «Sozietate publikoak» kontzeptuaren pean batutako botere esleitzailerako kontratuetan izandako aurkaratzeak gutxitu egin dira; hala, 2016an jarritako errekurtsu guztien % 13 baziren, 2017an, aurkeztutako errekurtsu guztien % 5 soilik izan dira. Aurkaratutako gainerako botere esleitzailerako kontratuak aurreko urteetako antzeko mailetan mantendu dira.

Botere esleitzailerako arabera errekurtsuok zer bilakaera izan duten ikusteko, koadro honetan daude jasota KEAOn zazpi urteko jarduneko datuak:




### IV.3. ERREKURTZOEN EHUNEKOAK, KONTRATU MOTAREN ARABERA

Jarraian jasotako grafikoan errekurtsioen ehunekoa irudikatu da, kontratu motaren arabera. Aurreko urteetan bezala, zerbitzu-kontratuak jasan dituzte nabarmen errekurtsio gehien; zehazki, errekurritutako kontratuen % 75 dira. Ondoren, tarte handiarekin, hornidura-kontratuak daude (% 20). Atentzioa ematen du, 2016an bezala, 2017an ere ez zela obra-kontratuen aurkako errekurtsorik izan.




Hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan, KEA Oren zazpi urteko ibilbidean aurkaratutako kontratu motak batez ere zerbitzuenak eta hornidurenak izan dira. Gainerako kontratuak (hala nola obren esleipenenak, zerbitzu publikoak kudeatzekoak edota sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzakoak) ez daude hurrengo koadroan jasota, oso gutxi baitira haiekin lotuta jasotako errekurtsioak.




#### IV.4. EHUNEKOAK, ERREKURTSOA IPINITAKO EGINTZAKO

2017an errekurtsu gehien izan duten egintzak kontratu-esleipenak izan dira: errekurritutako egintzen % 53 izan dira, 2016an bezala. Ondoren, iragarkiei, pleguei eta bestelako dokumentuei egindakoak daude (% 29). «Beste batzuk» atalaren barruan, errekurtsorik izan ez duten egintzak ageri dira, hala nola esleipen-proposamenak. Azpimarratu behar da, 2016ko datuekin alderatuta, % 5 igo dela baztertze akordioen aurka jarritako errekurtsoen ehunekoak; izan ere, 2016an % 8 izatetik 2017an % 13 izatera igaro dira.

Errekurritutako egintza




Hurrengo grafikoan ikus dezakegun moduan, KEAOk jardunean emandako zazpi urteotan, gehien aurkaratu den egintza esleipen-erabakia izan da, nahiz eta urteek aurrera egin ahala kontratuaren pleguen kontrako errekurtsuok ere gora egin duten.



#### IV.5. 2017AN EMANDAKO EBAZPENEN IZAERA

Hurrengo grafikoan 2017an emandako ebazpenen izaera irudikatu da, eta nabarmentzekoa da ezetsitako errekurtsoen ehunekoan izandako igoera, 2016an % 37 izatetik 2017an % 46 izatera igaro baitira. Era berean, aipagarria da osoko edo partzialki baietsitako errekurtsoetan izandako beherakada, 2016an % 37 izatetik 2017an % 27 izatera igaro baitira. Onartu ez diren errekurtsoen portzentajea % 1 hazi da 2016. urtearekin alderatuta.


Ebazpenaren egoera





## IV.6. ERREKURTSOAK, HILABETEAREN ETA URTEAREN ARABERA

Honako grafiko honetan, KEAO jardunean izan den urteetan (2011tik 2017ra bitartean) aurkeztutako errekurtsoen kopuruak ageri dira, urteen eta hilabeteen arabera sailkatuta:



## IV.7. EBAZPENA EMATEKO EPEA

Prozedura izapidetu eta errekurtsuak eta erreklamazioak ebazteko batez besteko epea 23 egun naturalekoa izan da 2017an, kontratazio-espedientea KEAOn jasotako egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori 36 egun naturalekoa da errekurtsua aurkeztzen denetik zenbatzen hasita, bai kontratazio-organoaren erregistroan bai KEAOn bertan. Horrek zera esan nahi du: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 46.2 artikulua aipatzen dituen espedientea, errekurtsua kasu honetan, eta txostena bidaltzeko batez besteko epea 13 egun naturalekoa dela.

2016arekin alderatuta, ebazpenak emateko epea 6 egun naturaletan murriztu da; aldiz, botere esleitzzaileak espedientea bidaltzeko denbora 4 egun naturaletan gehitu da.

## IV.8. ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOAK ETA EMANDAKO EPAIEN IZAERA

Honako koadro hauetan, errekurtsu bereziekin, erreklamazioekin edota deuseztasun-auziekin lotuta emandako ebazpenen kontra ipinitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoen kopuru osoa ageri da (zehazki, 2017ko abenduaren 31ra bitartean jarritakoak eta 2018ko martxoaren 31ra bitartean ezagututakoak). Hona hemen esandako datara bitartean KEAOn ipinitako errekurtsu guztien gaineko ehunekoak:

2011-2017 aldia

Urtea	Admin. Auzi-errek. Guztizko kopurua	Kontratuen ing. Errk. Guztizko kop.	%
2011	5	68	7,35
2012	3	125	2,40
2013	10	128	7,81
2014	22	169	13,02
2015	14	168	8,33
2016	21	158	13,29
2017	11	178	6,18
<b>Guztira</b>	<b>86</b>	<b>994</b>	<b>8,65</b>

Honako hau da KEAOk ezagututako erabaki judizialen izaera, 2018ko martxoaren 31ra bitartean, errekurtsio berezia jarri den urtearen arabera sailkatuta:

Erabakia	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	Guztira	Ehunekoa (%) auzi- errekurtsio guztiekiko	Ehunekoa (%) jarritako errekurtsio guztiekiko (994)
Baiespenak	0	0	3	7	3	5	0	18	<b>20,93</b>	<b>1,81</b>
Baiespen partzialak	2	1	0	2	2	0	0	7	<b>8,14</b>	<b>0,71</b>
Ezespenak	2	2	3	5	4	1	0	17	<b>19,77</b>	<b>1,71</b>
Atzera-egiteak	1	0	3	6	5	3	1	19	<b>22,09</b>	<b>1,91</b>
Ez onartzeak	0	0	1	0	0	0	0	1	<b>1,16</b>	<b>0,10</b>
Iraungitako prozedurak	0	0	0	1	0	3	0	4	<b>4,65</b>	<b>0,40</b>
Erabakiaren zain	0	0	0	1	0	9	10	20	<b>23,26</b>	<b>2,01</b>
<b>Guztira</b>	<b>5</b>	<b>3</b>	<b>10</b>	<b>22</b>	<b>14</b>	<b>21</b>	<b>11</b>	<b>86</b>	<b>100,00</b>	<b>8,65</b>

2017ra bitartean aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoak erabat edo zatika kontuan hartzen dituzten epaien kopuru osoa orain arte aurkeztutako errekurtsorek bereziekin, erreklamazioekin eta deuseztasun-azuekin alderatzen bada, ikusiko dugu KEA Oren erabakien % 97,48k ez dutela errekurtsorik izan, edota, izan badute ere, ez dutela kontrako epai oso edo partzialik jaso 2018ko martxoaren 31ra bitartean (baieztapen-tasa). Ehuneko horrek 2017ko abenduaren 31ra bitartean aurkeztutako errekurtsorek berezien, erreklamazioen eta deuseztasun-azuei egiten die erreferentzia, eta ez ebatzen kopuruari (azken kopuru hori txikiagoa da, haietakoren batek errekurtsorek metatuta edukitzeagatik).

Urteen arabera, honako hau da ehunekoa:

- 2011. urtea ..... % 97,06
- 2012. urtea ..... % 99,20
- 2013. urtea ..... % 97,66
- 2014. urtea ..... % 95,27
- 2015. urtea ..... % 96,87
- 2016. urtea ..... % 96,84
- 2017. urtea ..... % 100,00

Kontuan izan behar da 2014ko errekurtsore bat eta 2016ko bederatzi epai jasotzeko zain daudela. Halaber, nahiz eta 2017an administrazioarekiko 11 auzi-errekurtsore ezarri diren, orain arte erabaki bakar baten berri izan da: atzera-egite bat, hain zuzen.

Ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian ipinitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoren kopurua dago zehaztuta, baita organo horrek jarduera-urteetan emandako ebatzenak ere. Era berean, 2017ko martxoaren 31ra bitartean jakinarazitako epaien zentzua ere azaltzen da, ebatzena aurkaratuta daukan errekurtsore bereziaren urtearen arabera multzokatuta.

## 2011. urtea

- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoren guztizko kopurua: .....5
- Erabakia
  - Baiespen partzialak .....2
  - Ezespenak .....2
  - Atzera-egiteak.....1
- Erabaki kopurua orotara .....5

## 2012. urtea

- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoen guztizko kopurua: .....3
- Erabakia
  - Ezesprenak .....2
  - Baiespen partzialak .....1
- Erabaki kopurua orotara .....3

## 2013. urtea

- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoen guztizko kopurua: .....10
- Erabakia
  - Ezesprenak .....3
  - Atzera-egiteak .....3
  - Onartu gabeak .....1
  - Baiespenak .....3
- Erabaki kopurua orotara .....10

## 2014. urtea

- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoen guztizko kopurua: .....22
- Erabakia
  - Atzera-egiteak .....6
  - Prozedura iraungita .....1
  - Baiespenak .....7
  - Baiespen partzialak .....2
  - Ezesprenak .....5
- Erabaki kopurua orotara .....21
- Ebazteke .....1



## 2015. urtea

- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoen guztizko kopurua: .....14
- Erabakia
  - Atzera-egiteak.....5
  - Baiespenak.....3
  - Baiespen partzialak .....2
  - Ezespenak .....4
- Erabaki kopurua orotara.....14

## 2016. urtea

- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoen guztizko kopurua: .....21
- Erabakia
  - Atzera-egiteak.....3
  - Iraungitako prozedurak.....3
  - Baiespenak.....5
  - Ezespenak.....1
- Erabaki kopurua orotara.....12
- Ebatzi gabe.....9

## 2017. urtea

- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoen guztizko kopurua: .....11
- Erabakia
  - Atzera-egiteak.....1
- Erabaki kopurua orotara.....1
- Ebatzi gabe.....10

## V. 2017KO EBAZPENIK GARRANTZITSUENAK

2017ko ebazpenik garrantzitsuenei buruzko laburpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian errekurtsua ipinitako KEAoren ebazpenen zerrenda eta haiei buruzko erabakia *Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren doktrina* izeneko dokumentuan daude zehaztuta, hain zuzen ere, KEAoren webguneko «Memoriak eta doktrina» atalean.

Ebazpenen laburpenetik osoki edo partzialki ezabatu dira gerora etorritako lege aldaketa edo jurisdikzio-erabakien ondorioz berrikusi diren kontsiderazioak dituztenak. Hona hemen horietako garrantzitsuenak:

- Eskaintza edo lizitatuzailea errekurtsu berezia jasan dezakeen egintza gisa onartzeko kontsiderazioa, Europako Justizia Epaitegiak 2017ko apirilaren 5ean emandako epaiaren ostean (C-391/15 ECLI:EU:C:2017:268 auzia) (120/2017 Ebazpena).
- Sindikatuen legitimizazioaren baiespena (Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 448/2015 Epaia, 2015eko urriaren 26koa) (69/2016 Ebazpena).
- Baztertutako lizitatuzailearen legitimazioa bazterketa irmoa ez izan arte, Europako Justizia Auzitegiaren 2016ko abenduaren 21eko epaiaren ostean, *Bietergemeinschaft Technische Gebäudebetreuung und Caverion Österreich* (C 355/15, EU:C:2016:988).
- Gaikuntza profesionalaren baldintzaren konkurrentzia aintzat hartzeko une erabakigarria proposamenak aurkezteko epearen amaiera da (Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 543/2015 Epaia, azaroaren 30ekoa) (69/2015 Ebazpena).
- Hornidura-kontratuen pleguetan ezin da ezarri prezioa ordaintzeko obligazioa ondasunen hartzaileak eta ez Administrazioak hartzea bere gain (Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2016ko irailaren 26ko epaia, 251/2015 prozedura zenbakia) (41/2015 Ebazpena).
- Proposamen bat ausartegia edo neurrigabea den baloratzeko kontratuaren pleguetan lizitazioaren oinarritzko aurrekontuari dagokion gutxieneko atalase finko bat (% 10) ezartzeak bat egiten du Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 150.2 artikuluekin (Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2016ko urtarrilaren 19ko epaia, 611/2014 prozedura zenbakia) (80/2014 Ebazpena).

KEAoren ebazpenen gainean Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegiak emandako epaien zerrendan, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegiaren epaia berresten dituzten Auzitegi Gorenarenak ere gehitu dira.